

"KOSMODISEARI ESKER, IKASLEEK IDEIAK ETA ARRAZOIKETAK ADIERAZTEKO TRESNA GISA EZAGUTZEN DITUZTE IKT-AK"



Igor Goikoetxea – Mertxe Jimeno [Nazaret Zentroa | Batxilergoa]

Igor Goikoetxea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak sustatutako Kosmodisea lehiaketako Ikono Planetan Batxilergoko kategorian lehen geratu den Nazaret Zentroko "Los Ciruelos" taldearen arduraduna da. Azaldu duenez, taldeko ikasleak izugarri animatu ditu lanarekin jasotako puntuazioak, egindako esfortzuek beren fruituak eman baitituzte. *"Bereziki, garrantzitsuena gainerako taldeek emandako puntuazioa izan da. Ikasleentzat oso garrantzitsua da beren bidelagun izan direnek egindako lanari balioa ematea."*

- Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?
- *Ideiak irudien bidez islatzea beti da erronka. Gure proiektuaren "bihotza" helarazteko erabiltzen den hizkuntza da gaiaren gakoa. Agian, horixe izan da ikasleentzat zatirik zailena.*
- 2010-2011 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?
- *Ikasleek elkarrekin lan egitea eta gainerako taldeek proposatutako erronka berari nola erantzuten dioten ikustea. Beste talde batzuekin elkar eragitea eta, bereziki, ikertu, probatu eta irudimena askatzea.*

- Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

- *Batxilergoko 1. mailako ikasleak dira eta, orain arte, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten harremanaren zati handiena ludikoa izan da. Aurten, irakasle-taldearen asmoa beste aurkikuntza bat egin dezaten da: IKTak ideia eta arazoiketak adierazteko tresna gisa erabiltzea. Eta horretan Kosmodisearekin bat egiten dugu, beren ideiak proiektu bilakatzen laguntzen baititu.*

Hor dago beren erronka nagusia, zer da proiektu bat? Eta, bereziki, zer da lantalde bat? Zailena, beti, lankidetzarako, ideiak partekatzeko, kideen ekarpenak baloratzeko, gure ideiak soilik ez kontuan hartzeko jarraibideak zehaztea da, eta, oso garrantzitsua den zerbait: ideiak gure ingurunean antzematea.

- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2010-2011 edizioko azken etapari?

- *Ilusio eta gogo biziz, gainerako etapei heldu diegun bezala. Badakite gogorragoa izango dela, gainerako taldeak prestatuta daudela eta guztiek azken sprintean izugarrizko esfortzua egingo dutela. Begirada abenturaren amaieran jarrita ekingo diogu.*